



Euskal Herriko
Unibertsitatearen Urrezko
Domina Euskaltzaindiari
emateko ekitaldia

Acto de concesión de
la Medalla de Oro de la
Universidad del País Vasco
a Euskaltzaindia

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Euskal Herriko
Unibertsitatearen Urrezko
Domina Euskaltzaindiari
emateko ekitaldia


Acto de concesión de
la Medalla de Oro de la
Universidad del País Vasco
a Euskaltzaindia

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Zeremoniala
UPV/EHUren URREZKO DOMINA
EUSKALTZAINDIARI
EMATEKO ERTALDIA
UPV/EHUko ARETO NAGUSIA
2019ko urriak 25

Ceremonial
ACTO SOLEMNE DE ENTREGA DE
DALLA DE ORO DE LA UPV/EHU
A EUSKALTZAINDIA
MAGNA DE LA UPV/EHU
octubre de 2019

Aurkibidea | Índice


1. Pedro Iriondo Bengoa, idazkari nagusi jauna
Pedro Iriondo Bengoa secretario general 7
2. Miren Azkarate irakasle andrearen laudatioa
Laudatio de la profesora Miren Azkarate 11
3. Andres Urrutia, euskaltzainburu jaunaren hitzaldia
Discurso del presidente de Euskaltzaindia, Andres
Urrutia 19
4. Nekane Balluerka, Euskal Herriko Unibertsitateko
errektore andrearen hitzaldia
Discurso de Nekane Balluerka rectora de la
Universidad del País Vasco 25




eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea





Pedro Iriondo Bengoa,
idazkari nagusi jauna

Pedro Iriondo Bengoa
secretario general







La Medalla de la Universidad, instituida en la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea por Acuerdo de la Junta de Gobierno de 21 de abril de 1983, es «expresión del reconocimiento de la Institución a las personas físicas o jurídicas, privadas o públicas, de cualquier nacionalidad, que hayan prestado servicios extraordinarios a la misma o se hayan destacado en el cultivo de las ciencias, de las letras o de las artes», pudiéndose otorgar en las modalidades de oro o de plata.

En este sentido, a propuesta del equipo de Gobierno, el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU en su sesión de 13 de noviembre de 2018, aprobó la concesión a Euskaltzaindia de la Medalla de Oro de la UPV/EHU, por el trabajo que, durante años ha realizado en la estandarización y modernización de la lengua vasca.

Desde que, a comienzos de los años ochenta, se ofertaran las primeras asignaturas en euskera, la presencia y estatus del euskera en la UPV/EHU ha mejorado considerablemente. Nuestra universidad ha dado pasos decisivos para la normalización del uso del euskera en la docencia, en la investigación, en la divulgación del conocimiento y en la actividad administrativa. Además, la UPV/EHU ha contribuido a la creación y difusión de una amplia terminología científica en euskera, así como de un euskera estándar adecuado para

el uso universitario. Esta circunstancia ha posibilitado, entre otras cosas, que la mayoría del alumnado que entra actualmente en la universidad pueda realizar sus estudios en euskera, que se publiquen cientos de libros en euskera o que se defiendan más de 40 tesis en esta lengua.

Son muchos los agentes, instituciones, organismos y personas que han posibilitado la realidad que el euskera vive en este momento en la UPV/EHU. A nivel interno, es de subrayar el compromiso con el euskera del profesorado y del personal de administración y servicios, así como la confianza que miles de estudiantes han depositado en la calidad de la docencia en euskera.

Pero, sin duda alguna, la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia es una de las instituciones del ámbito de la lengua que más han orientado y facilitado la presencia oral y escrita que el euskera tiene actualmente en la universidad.

Por una parte, el hecho de que Euskaltzaindia impulsara un modelo unificado para el euskera, el euskera batua, ha facilitado el desarrollo de un euskera científico propio de la universidad.

Bestetik, irakasle asko eta administrazio eta zerbitzuetako langile asko Euskaltzaindiaren Gau Eskoletan euskaldundu eta alfabetatu ziren, eta gerora profesional horiexek sustatu zuten unibertsitatearen euskalduntzea, hala irakaskuntzan eta ikerketan nola administrazioan eta zerbitzuetan.

Hirugarrenik, gogoan izan behar dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren arabera (6.4), Euskaltzaindia dela aholku erakunde ofiziala euskarari dagokionez. Zeregin hori funtsezkoa izan da unibertsitateko jakintza arloetako terminologia sortzeko irizpideak ezartzean, eta unibertsitateko prosa estandarren eredua finkatzean.



Euskaltzaindiarekiko harremana, baina, ez da iraganeko kontua bakarrik. Orainari eta geroari begira ere badago.

Gaur egun, UPV/EHUko irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako langile askok lotura estua dute Euskaltzaindiarekin, dela haren lan taldeetan parte hartzen dutelako, edo euskaltzain urgazleak edo osoak direlako.

Gainera, UPV/EHUK eta Euskaltzaindiak lankidetzaz hitzarmenak dauzkate, elkarrekin liburuak argitaratzeko, ikerketak egiteko eta euskarazko doktorego tesiei bultzada eta aitorpena egiten dieten sariketarako antolatzen.


Etorkizunari begira, ez dugu zalantzarik UPV/EHUK jarraituko duela Euskaltzaindiaren jarraibideen premia izaten euskararen erabilera normaltzeko. Ordainetan, unibertsitateko euskaldunen erkidegoak bere ekarriaz aberastuko du Euskaltzaindiaren lana.

Laburbilduz, begi-bistakoa da Euskaltzaindiak UPV/EHUri iraganean eman dionagatik, orain ematen dionagatik eta etorkizunean ere emango dionagatik, merezia duela UPV/EHUren Urrezko Domina.

Eta nik, Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiak, horren guztiaren fede ematen dut, Leioan, 2019ko urriaren 25ean.

Miren Azkarate irakasle andrearen
laudatioa

Laudatio de
la profesora Miren Azkarate







Errektore andrea,
euskaltzainburu jauna,
klaustrokideok,
euskaltzain kideok,

gaur Euskaltzaindiari Urrezko Domina emateko ekitaldira hurbildu zareten guztiok, egun on eta ongi etorri.

Zirrara berezia sentitzen dut zuen guztion aurrean Euskaltzaindiaren goresmeneko hitz hauek irakurtzean. Bihotza erdibiturik ez, baina bikoizturik, nire irakasle bihotza, euskaltzainaren bihotzari ari zaio hizketan. Eskerrak bihotzaren barru-barrutik une gogoangarri hau bizitzeko aukera eman didazuelako.

Hamar Jardunaldi akademikoren harira gizarteratu nahi izan du Euskaltzaindiak ehun urteko ibilbidea. Hamar jardunaldi akademiko eta, besteak beste, bi argitalpen mardul ehun urte horien berri izan nahi duenak behar duen informazioa eskura dezan: Joan Mari Torrealdai eta Imanol Muruaren *Euskaltzaindia ekin eta jarrai* (orain dela hamar urte argitaratu zena, 90. urteurrenkari, alegia, eta Euskaltzaindiaren webgunean edonoren eskura dagoena) eta oraindik hilabete ez dela eskuetan izan duguna, Juan Luis Zabalaren *Berri gogo*a. *Euskaltzaindiaren lehen ehun*

urteak. Bi lan hauek, eta Koldo Zuazoren 1988ko *Euskararen batasuna* liburuak aske uzten naute kronista-lan zehatza egitetik. Eta horrenbestez, alde zurretik onartzen dut zuetako batzuk bat ez etortzea goresmen-hitz hauetarako aukeratu ditudan gertakariekin.

Alabaina, gutxik ukatuko dute leku berezi eta nabarmena izan duela bide erdiko mugarri izan zen Arantzazuko biltzarrak. Esango nuke gaurko euskaldunek euskararen batasunarekin lotzen dutela Euskaltzaindia. Batzuek, edozein hizkuntzarentzat aldaera estandar bat izateak zer garrantzia duen jabetzen direnek, miresmenez eta esker onez egingo dute, ziurrenik, lotura hori. Beste batzuek, ezin konta ahala araren erantzuletzat dutenek, behar bada ez horrenbesteko miresmenez. Baina guztiek aitortuko diote batasunaren gidaritzat eta lemaizain lana. Alde horretatik, aitortu behar zaio Euskaltzaindiari ondo baino hobeto bete duela sorburutik beretik zuen helburu eta zeregina. «Euskaratuak bide oparoa egin du sortu zenetik gaur arte; euskararen aldeko ahaleginetan nekatu ginen garaian baikorrik zoroenak ere ezin amestuko zukeen neurrietaraino oparoa» Broussain-E19 androidearen ahotan jartzen ditu Juan Luis Zabalak hitzok. Nola gertatu da, ordea, mirari hori?



100 urte Euskara Ehuntzen, hori izan da Euskaltzaindiak mendeurrenerako hautatu zuen goiburua. Ehuna moldatzea esan nahi du *ehundu* aditzak; baina bi motatako hariak behar dira ekintza horretarako: irazkiko hari multzoa, hau da, elkarren paralelo ezartzen diren harien multzoa, eta bilbekoa edo zeharkako harien multzoa. Biologiaren alorreko definizioari erreparatzen badiogu ere –morfologia eta egiteko bera duten zelulen multzoa– ikusiko dugu *ehun* izenak multzoaren beharra dakarrela berarekin. Beste hitz batzuekin esanda, elkarlana. Horixe azpimarratu zuen euskaltzainburuak mendeurrenaren amaierako ekitaldian: «Euskal Herriko gizarte-eragileekin batera jardun behar dugu, ahalik eta modu zabalenean, mendeurrenean egin dugun bezala». Gizarte-eragile hauek hartuko ditut, Euskaltzaindiarekin batera, irazkiko hari multzotzat.

Zein dira bilbeko hariak? Euskaltzaindia sortzeko eta bere lana aurrera eramateko

garai bakoitzean, giro egokia sortu duten eragile eta erakundeak. Hari multzo baten artetik beste hau igaroarazi ehundu da euskara mende batean zehar. Baina Euskaltzaindiaren hari-multzoaz ari garenez, aitortu behar zaio Akademiari egoki erantzun diela garai eta aldi bakoitzeko itxaropen eta eskariei; behar bezalako hari-multzoa osatu duela ehundegi horretan.

Utz iezadazue, ordea, Pedro Miguel Etxenikek hitzaldietan behin baino gehiagotan erabiltzen duen irudiaz baliatzen. André Gide idazlearen olatuen irudiaz ari naiz. Idazle frantziarrak bere *Egunerokoan* idatzi zuen, olatu bakoitzak, aurretik itsasertzera iritsi eta itsasora itzuli ziren uhinei zor die-la bere edertasuna. Horrela irudika daiteke ehun urteko euskara-ehuntze hori ere. Bilbeko harien bage sailak iritsi eta atzera egitean, Euskaltzaindiaren olatuak erantzun dio aurrekoari (irazkiko hariak); beste bilbe olatu sail bat ondoren eta honen atzetik atzera berriz Euskaltzaindiaren ekarria.

XIX. mendearen erdi aldera hasi eta XX. menderaino iritsi zen lehen bilbe uhina. Lehen euskal idazleek nabarmendu zuten mintzatze moldeen aniztasunaren aurrean, eta euskalkien eta azpieuskalkien azterketa nagusi zen garaian, euskal lurralde guztietako ordezkariak osaturiko Akademia bat eratzea proposatu zuen Jose Frantzisko Aizkibelek. «XIX. mende amaieran, 1876az geroztik bereziki, pil-pilean jarriko da hizkuntza batasunaren auzia» dio Koldo Zuazok. Jose Pablo Ulibarri, Jean Duvoisin, Pablo Ilarregi, Jose Manterola, Aristides Artiñano, Cosme Txurruka, Jean Pierre Arbelbide, Adolfo Gabriel Urkixo... horiek guztiek bat egin zuten Akademia bat sortzeko aldarrikapenean. Honela aitortzen du Euskaltzaindiak bere webgunean: «Azkenik, atzerriko (Bonaparte, Van Eys, Schuchardt, Dodgson, Gavel, etab.) eta geure herriko ikertzaileek (Campion, Azkue, Urkixo, etab.) lagundu zuten asmoa, eta, aldi berean, garaiko herritarren

elkarte euskaltzaleek ere (*Euskal Esnaleak*, adibidez). Horri guztiari esker sortu zen giro egokia hizkuntzaren Herrialde Historikoetako Herri Erakundeek Akademiaren Hizkuntza Erakundea sor zezaten».

Olatu sail horrek ekarri zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimena eta hari jarraiki, Hegoaldeko beste hiru aldundiena. 1919an eratu zen juridikoki Euskaltzaindia eta berehala lotu zitzaion lanari. 1919ko urriaren 26an euskaltzain berriak izendatzerakoan bere gain hartu zituen eginkizunak dira: ortografia arautzea, euskal hiztegia eratzea (kontzeptu berriak izendatzeko beharrezko diren neologismoak barne) eta euskara bateratzea, lurralde guztietako euskaldunentzako euskara literarioa eratzea. Hurrengo urteetan ez zuen lortu literatur euskara bat eratzea, baina 1920ko hamarkadan egindako lanek, batasunerako ereduaz izandako eztabaidek, oinarri sendoagoa eman zieten ondorengo ekinaldiei.



1950 hamarkadako azken urteetan eta 1960koan iritsi zen hurrengo olatu saila. Aldatzen ari zen gizarte batean belaunaldi gazteak literatura-eredu batua behar zuten. Sortzen ari ziren argitaletxeek eredu batua eskatzen zuten. Poliki-poliki indarra hartzen ari ziren ikastolek, helduen euskalduntzeko lehen hazia ereiten hasiak ziren gau-eskolek, eredu batua behar zuten. Nabarmena izan zen garai hartan Txillardegiren lana; 1964ko Baionako erabakiak izan ziren Arantzazuko 1968ko biltzarrerako bilbe eta irazki, aldi berean.

Arantzazuko kongresutik sortu zen batasunerako olatu saila, haizearen eraginez hazi ahala, lastertasuna ez ezik, luzera ere handitu zaiona. Arantzazun marraztu zuen maisuki Koldo Mitxelena hurrengo mende erdirako (eta gehiagorako ere) ibilbidea, etnik gabe aurrera nondik egin erakutsi ziguna. Baina hor ere baziren aurreko olatuak, behar besteko indarrak izango ez zutenak. Baina ez zen alferrikakoa izan XIX. Mendearen erdi aldetik aurrera ortografiaren alorrean batasun batera iristeko nahia, Iparraldean lehenik eta Hegoaldean ondoren, 1901 eta 1902ko biltzarretara iritsi artekoa. Edo Luis Eleizalde Oñatiko Eusko Ikaskuntzen I Kongresuan aipatu zituen puntuak: ortografia, fonetika, aditza, neologismoak, eratorpena... Guztiak kontuan hartu beharrekoak euskararen biziberritze linguistikorako. Mitxelena txostenean eta 1980tik honako ibilbidean aztertu eta landu direnak.

1970eko hamarkadako irazkian lankide-belaunaldi gaztearen hariak txertatu ziren. Eta, horien bilbe eginaz, euskara (eta batasunerako erabakiak) ikastolen bidez irakaskuntzan poliki-poliki hedatzea, euskarazko prentsaren indarberritzea edo pauso sendoak ematen hasi zen helduen alfabetatzea etorri ziren. Ia aho bateko onarpena eman zion mundu horrek Euskaltzaindiaren hamar urteko lanari Bergarako Biltzarrean 1978an.

Onarpen horrek haize eman zion ordutik aurrera etorri diren Atlas, Hiztegi, Gramatika, maileguak egokitzeko irizpide, hitz berriak sortzeko bideen ikerketa, Onomastika eta Exonomastika, Literatura... lanei. Eta, aldi berean, modu ikusgarrian sendotu da irazkiko harien mataza. Inoiz baino lankidetzara oparo eta zabalagoa du Euskaltzaindiak, besteak beste, azken hogeita bost urte hauetan gure unibertsitateetan hezi eta prestatu diren belaunaldiei esker.

Baina «baikorrik zoroenak ere ezin amestuko zukeen neurrietaraino oparoa» izan den ibilbide hori ezinezkoa izango zen 1980ko bilbe-uhainik izan ez balitz, sortu berria zen Jaurilaritzak erabaki ez balu eredu batua erabiliko zela irakaskuntzan. Carlos Garaikoetxea lehendakariak eta Pedro Miguel Etxenike sailburuak aipamen berezia merezi dute ekitaldi honetan.

Irazki- eta bilbe-hariz osatu den ehun horretan, batzuen eta besteen uhin sailetan, ez da dudarik Euskaltzaindia izan dela eta dela gaur ere 1901 eta 1902ko kongresuen porrotaren ondoren beharrezko ikusi zen Akademia, euskararen aldeko lanetan eragina eta autoritatea izango zuena. Eta ez da dudarik, halaber, garai hartako langile ongi jantziek nahitaezkoztat zeukatena eta XX. mendearen hasierako lehen urte haietan ikusten ez zutena: erakunde bultzada. «Mila bederatzi ehun eta zazpi garren urtean gaude. Aitatu ditugun euskaltzaleak bateratzeko indarketa guziak alperretan galdu dira. Horrelako sail gogorra bururatzeko, asmo handiko langileak baino, indar eta dirudunak beharago dira: betoz horretarako Aldundiak»¹. Azkenean 1918ko urtarrilaren 25ean aintzat hartu eta eztabaidatu zen Akademia sortzeko proposamena Bizkaiko Aldundian, eta otsailaren 15ean onartu. Gaur euskara gaietan erakunde aholku-emaile ofiziala da Eus-

¹ Ziurrenik Azkuerenak diren hitzak, Torrealdai eta Murua-
ren iritziaren arabera (2009: 23).



kaltzaindia, euskararen lurralde guztietan onartua.

Ez dut aipatu gabe utzi nahi euskara zaintzeko lana ere, sortzetik beretik antolatu baitzen Euskaltzaindia Iker eta Jagon Saitetan. Azken hogeita hamar, hogeita hamabost urte hauetan erakundeek hartu dute, batez ere, beren gain hizkuntzaren jagote hori. Baina kontu honetan ere, Luis Eleizaldek «aspecto social de la lengua» deitu zuenean, hari asko behar ditu irazkiak: erakundeenen ondoan, baita Euskaltzaindiaren Sustapen batzordearenak eta gizarte osoarenak ere. Euskara zaintzeko lanean 1960ko eta 1970eko hamarkadetan bertsolari-txapelketak antolatzeaz edo euskararen agiriak emateaz arduratu zen Akademia. Gerraurreko jardunaren eta ondorengo arteko zubi-lana izan zen lehenena. Euskara batuan alfabetatzeari gogotsu

ekin ziotenei erantzuna emateko modua bestea.

Euskarak gaur badu lekua eta erabilera orain arte ezezagunak zitzaizkion eremuetan: irakaskuntzako ibilbide osoan (baita unibertsitatean ere), administrazioan, osasunaren arloan, hedabideetan, baita ingurune digitalean eta gizarte-sareetan ere. Baina ez zuen horrelako aukerarik izango Euskaltzaindiaren gidaritzapean eredu estandarrik landu ez balu.

Ehungintzaz eta uhinez jardun dut orain arte. Zientziaren mundura hurbilduko naiz nire hitzei amaiera emateko, berriro ere Pedro Miguel Etxenikek maiz aipatzen duena ekarriaz hona. Honela zioen Newtonek Robert Hooke ikertzaile eta esperimendugileari 1676ko otsailaren 15ean idatziriko gutun batean: erraldioen sorbalden gainean eserita nagoelako izan naiz gai




urrunago ikusteko. Copernico, Galileo eta Kepler zituen Newtonek buruan. 1918an izendatutako Resurrección M.^a Azkue, Luis Eleizalde, Arturo Campion eta Julio Urkixo, lehen lau euskaltzainak, eta horiekin batera Broussain eta bere kideak izango lirategure lehen erraldoiak.

Hasierako euskaltzain horien sorbalden eta horiek egindako lanaren gainean eseri ziren Koldo Mitxelena, Krutwig, Villasante, Lafitte, Haritschelhar, San Martin, Irigoien Altuna... Horien sorbalden gainean dago


eserita gaurko Euskaltzaindia. Irazki- eta bilbe-hariez euskara ehuntzen jarraitu beharko du, XXI. mendeak ekarri digun ingurune digitalaren erronkari aurre egiten. Baina gaur «Euskaltzaindiaren lehen ehun urteez» aritzea egokitu zait, mende batean zehar euskara ehuntzen egindako lanaren berri ematea.

Eta azaldutako guztiagatik, Euskaltzaindiari Euskal Herriko Unibertsitatearen Urrezko Domina ematea eskatzen dut.



Andres Urrutia,
euskaltzainburu jaunaren
hitzaldia

Discurso del presidente
de Euskaltzaindia,
Andres Urrutia







Euskal Herriko Unibertsitatearen errektore andrea,
agintariak,
euskaltzainak,
klastroko kideak,
andre eta jaunak,
Egun on, guztioi

Izan bitez nire lehen hitzak eskerrak emateko. Eskerrak Euskal Herriko Unibertsitateari, Euskaltzaindiari egiten dion aitortzagatik, eskerrak Miren Azkarate euskaltzainkide eta bertako irakasleari, bere laudatioarengatik, eta eskerrak, Euskaltzaindiarekin bat egitearren, ekitaldi esanguratsu honetara hurreratu zareten guztioi. Eskerrak, besteak beste, urte luzetan bidelagun izan zaituztegun-lako, eta euskararen Akademiak ondu duen mendeurren honetan hur-hurrean lanean jardun dugulako, elkarrekin.

Suak du burdina frogatzen.

Hala dio erran zaharrak eta hala frogatu du Euskaltzaindiak historian zehar. Izan ere, su anitzak eta handiak etorri zaizkio euskarari ehun urtetan. Aldekoak eta kontrakoak, itzaliagoak zein biziagoak. Aldi batzuetan, euskararen sua ilinti txikia izan dela ezin ukatu. Eta, halakoetan, Euskal-

tzaindiaren burdina beti sendo, su horri eutsiz eta euskara aurrera eramanez!

Azkarate andre amabitxiak gogoratu dizkigu halakoak eta haren mintzo zehatz eta joriari men egiten diot erantzun honetan, errepikapenetan ez erortzeko.

Hartara, Euskaltzaindiaren burdina, indarra eta kemena, lehendabiziz, bere kideengandik etorri da, ehun urteetan zeharreko euskaltzain oso, ohorezko, emeritu, urgazle, batzordekide, langile eta Akademiaren lanetan parte hartu eta lagundu duten guztiak, horiek gabe ezinezkoa izango baitzen Akademiaren jarduna. Biografia desberdinekoak izanik ere, guztion artean egin zuten, egiten dugu eta egingo dute, ziur nago, iraganeko, oraingo eta geroko Euskaltzaindia, gu guztiok, euskal hiztun-elkartea osatzen dugunok baikara, norbait izatekotan, Euskaltzaindia bera osatzen dugunak.

1918-1919 urte bitarte horretan sorturiko Akademiak, egun, euskararentzako **erakunde aholku emaile ofiziala denak**, historian zehar, zin-zinezko komunitate zientifiko eta akademikoa ondu du, eta bere egitekoa gizartearen zerbitzuan jarri du.

Suak du burdina moldatzen.

Ehun urte geroago, Euskaltzaindia zuen aurrera dator, gizartearen aurrera dator, besteak beste, hasierako hura, *ekin eta jarrai*, beste batekin elkartuz, *ehun urte euskara ehuntzen*, hori egin duelako Euskaltzaindiak azken ehun urte hauetan, euskara ehundu, bilbatu eta egituratu.

Euskara **instituzionalizatu** dugu, eta gizarteari **zerbitzua eman diogu**. Ehun urte bete ditugu jarraitutasunez eta Euskal Herri osoan presente egoten, egunero lanean, etenik gabe. Tenore bateko eta besteko gobernuak ezagutu ditugu, euska-



raren aldeko eta kontrako suak, eta Akademiak euskararen burdina aurrera eraman du beti, euskal hiztunen elkarteak aldeztu, bultzatzen. Hori baita gure zeregina, hauspoa, bihotza eta kemenaren arrazoia.

Hasierako hura bi arlotan mamitu zuten orduko euskaltzainek, *Iker* eta *Jagon* sailetan. Euskara ikertu, ikertzen eta ikertuko du Euskaltzaindiak, euskara jagotearekin batera. Ehun urteetan, hainbat aldi igaro ditu euskarak, batera eta bestera, garai zailak, gaitzak, gozoagoak..., baina guztietan egon da zutik Euskaltzaindia, euskara jomuga bakarra duela eta gure hizkuntzari emana, Euskal Herrian zein Euskal Herritik kanpo, euskal diasporak egun sortu dituen balioak ere aintzat hartuz gure hizkuntza eta kultura transmititzeko, sustatzeko eta zabaltzeko.

Suak du burdina batzen

Euskararen su anitza eta bizia ere egiteko, hartu zuen Euskaltzaindiak hizkuntzaren batasuna lortzeko aitzindaritza eta, hainbat euskal eragilerekin batera, eus-

kara batuaren gorpuztea bideratu du eta egun ere bideratzen du.

Orobat, Euskaltzaindiaren oinarrian daude bestelako errealitateak, garai zail eta ilunetan sortu zituenak, eta gerora berezko izaera erdietsi dutenak: Bertsolari Txapelketak, AEK, Euskal Idazleen Elkarteak, itzultzaileak, euskarazko tituluak, UZEI, ikastolak, euskarazko argitalpenak, literatura eta ikerketa lehiaketak, hiztegiak eta abar. Hasiera emanez geroztik euskararen eta euskal kulturaren garapenerako erabakigarri gertatu eta euskalgintzan errotu egin direnak.

Horrela sortu da euskalgintza modernoaren azpiegitura eta hortxe egon da eta egongo da beti euskararen Akademia.

Suak du etorkizuneko burdina eragiten

Mendeurren honek, alabaina, beste baterako bidea jorratzen edo irekitzen du. Mendeurren honetatik aurrera, nahitaez, Euskaltzaindiaren lanak bestelako eite eta ezaugarriak izango baititu.

Izatez, Euskaltzaindiak bete-betean egon eta bizi nahi du XXI. mendean, eta azken 14 urteetan egin diren aldaketa eta aha-lerinak norabide horretan doaz. Aldaketa horiek nabaritzen ari dira, eta ondoko urteetan are gehiago nabarituko dira. Besteak beste, Mendeurrena hori guztia erakusteko baliatu nahi izan dugu.

Badakigu zeintzuk diren gure on-gaitzak, badakigu zeintzuk diren gure betekizunak, euskal gizartearen beharrezkoak bezala erantzuteko asmoz, Euskaltzaindiaren zerbitzu-bokazioa aspaldikoa da, baina **azkartu eta indartu** egin behar dugu, etengabe berrituz eta jarduna berrikusiz. Izan ere, jakitun gara aldaketa bide hori geldituz gabekoa behar duela.

Inguruabar horretan, euskararen biziberritzeari indar berrituekin heltzeko asmoz, Euskaltzaindiak **Mendeurrena baliatu nahi izan du** euskararekin, euskal kulturarekin eta euskal gizarte osoarekin duen konpromisoa eguneratzeko, eta, bide batez, **dei zabala egin dio euskal gizarte osoari**: hain justu, aldi berriari, XXI. mende korapilatsu baina itxaropentsu honi, **ilusio berrituarekin ekiteko**, denok baikara ezinbestekoak euskara indartu eta normalizatuko badugu.

Hona, bada, iazko urrian euskara batuaren lehen 50 urteak gogorarazteko sustatu genuen Arantzazuko biltzarraren adierazpenaren hitzak:

«Euskaltzaindiak engaiamendua adierazten dio gizarteari, ez goitik beherako ezarpenaren aldetik, ezpada pedagogiaren eta konpromisoaren aldetik, ideologia politikoetatik at. Koordinazio lanaren bidez gauzatuko du euskara batuaren sustapena eta bultzada.

Koordinazio horretan ari dira Euskaltzaindia, euskalgintza, gizarte eragileak, herri-

aginteak eta gainerako erakundeak, eta eginkizun horretan aintzat hartu behar dira euskara batuaren inguruko orain arteko erabakiak, euskara estandar baten nondik norakoak. Izatez, aurrerantzean ere eman beharko dira pausoak euskara batuaren alorrean euskalgintzarekin batera, hizkuntza zerbait bizia baita, etengabe aldatzen ari dena, gizarteak izan ditzakeen premiei egokitzeko asmotan. Hitz batez esateko, Euskaltzaindiak zerbitzua eman behar dio gizarteari, eta euskaldunengandik jasotzen duena euskaldunei itzuli, beraien onura eta erabilerrako»

Suak du elkarren arteko burdina islatzen

Euskaltzaindia garrantzi handiko eragile da euskal kulturagintzan... Baina ez da bakarra. Gainera, ez du bakarka jarduteko inolako bokaziorik, askotariko indarrak bildu nahi baititu euskara eta euskal kultura indarberritzeko ahaleginean. Hori delako dugun aukera bakarra munduko plazan bizirik iraun nahi badugu, euskaraz jardungo duen euskal gizarte beregaina ahalbidetuko badugu. Horregatik diot Euskaltzaindiak euskararen alorreko eta, oro har, euskal kulturaren eta bestelako alorreko gizarte-eragileekin **batera jardun nahi duela** eta jardun behar duela, ahalik eta modu zabalenean. Horretan eginahalak indartuko dituela hurrengo urteetan.

Helburuak eta etorkizuna hor ditugu, besteak beste, *digitalizazioa, nazioartekotzea, profesionalizazioa eta gizarteratzea*. Horiek izango dira gure ardatzak, gure abiarburuak. Eta horietan Euskaltzaindia zuen zerbitzura dagoenez gero, zuen partaidetza, laguntza eta kolaborazioa behar-beharrezkoak ditugu.

Aspaldikoa da Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzeta eta agerikoak dira horren fruituak. Orain arte eginiko bideak segitzea eta za-



baltzea gure bi erakundeon eskura dago, elkarrekikotasunez eta leialtasunez, horrela jokatzuz lortuko baita euskararen aitzinamendua.

Begien bistakoa da Euskal Herriko Unibertsitateak euskararen alorrean duen zeregina. Begien bistakoa, orobat, egungo zientifikotasunak eta akademikotasunak eskatzen duten hori egunero praktikatzeko duela, ikasgela, ikerketa eta abarrekotan... eta ezaguna da, aldi berean, euskararen alde egin duen apustu sendoa.


Bil gaitzaten bi erakundeok akademikotasun eta zientifikotasun horiek, bi-biok partekatzen ditugun baloreak baitira eta jar ditzagun gizartearen zerbitzuan, eta urrezko domina hau izan bedi xede

horretarako tresna eta lanabes preziatua ere. Horrela beteko dugu erran zaharren esanahia; *nori berea da zuzenbidea, emok emoliari eta egiok egileari!*

Ekin eta jarrai izan da hasieratik gure leloa, guztion leloa. Etorkizunean ere izaten segituko duena, eraberritua eta mamitua euskararen mesederako. *Eman ta zabal zazu da Euskal Herriko Unibertsitatearena. Bi-biak elkarren osagarri, bateragarri!*


Euskaltzaindiaren izenean eskerrak berriro ere adieraziz, egin dezagun elkarrekin XXI. mendeko euskara biziberritzearen aldeko bidea. Argi baitago onuragarri ez ezik, baliagarri ere izango dela euskal hiztun-komunitate osoarentzat, euskal gizartearentzat!

Mila esker



Nekane Balluerka,
Euskal Herriko Unibertsitateko
errektore andrearen hitzaldia

Discurso de Nekane Balluerka
rectora de la Universidad
del País Vasco







Euskaltzainburu jauna;
amabitxi andrea;
errektore ohi jauna;
euskaltzain
jaun-andreok;
herri-agintariok;
Euskal Herriko Unibertsitateko klaustroko
kideok;
jaun-andreok; lagunok.

Euskaltzaindia duela 100 urte sortu zen, eta hain zuzen ere mende bete geroago Euskal Herriko Unibertsitateak bere urrezko domina eman dio Euskararen Akademiari.

Gure araudiaren arabera, Euskal Herriko Unibertsitatearen urrezko domina ematen zaie unibertsitatearen ospea zabaltzen bezelako lagundu dutenei –zientzien, letren eta arteen arloan nabarmendu direlako– edo UPV/EHUko kide izan gabe gure unibertsitateari aparteko zerbitzua eskaini diotenei.

Euskaltzaindia eta Unibertsitatea bi erakunde desberdin dira, baina esan dezakegu bi-biak eskutik helduta ibili direla azken mende erdian. Beraz, Euskaltzaindiak merezimendu osoz jaso du Euskal Herriko Unibertsitatearen urrezko domina.

Igaro diren 50 urte hauetan, unibertsitate publikoak behar bezala erantzuten jakin du eta aurre egin die gizartearen, hizkun-

tzaren, gizarte inklusioaren eta irakas-kuntza eta ikerkuntzaren kalitatearen erronkei. Eta horrekin batera, kementsu aritu da euskararen normalizazioan.

Egia esan, ez dira gutxi gaurko egoerara heltzeko euskararen normalizazioan unibertsitatean eman ditugun urratsak. Gauza asko aldatu dira gure unibertsitate publikoa sortu zenetik, euskarak gizartean ia presentziarik ez zuen 60ko hamarkada amaierako egoera hartatik. Adibide bat jartzearren, nahitaezko irakasgaien % 97a euskaraz irakasten ditugu, eta datu adierazgarria da hori, noski.

Pertsonok ahazteko joera dugu, baina ahalegin txiki bat egin beharko genuke gogoratzeko zein egoeratan zegoen euskal gizartea (eta gure kultura) orain dela mende erdi. Nork esango liguke, 1960an, 1970an, gaur egun unibertsitatean edozein ikasketa euskaraz emango genuela? Garai hartan ametsa zirudien; orain, horrenbeste denbora igaro ez bada ere, beti horrela izan dela iruditzen zaigu.

Hau guztia posible izan bada, 50 urte hauetan gogor lan egin delako izan da, eta unibertsitateak bidaide onak aurkitu dituelako bidean. Gehiago esango dut: argi izan behar dugu gaur dugun unibertsitatea ez dela berez sortu, eta eraikuntza kontziente baten emaitza izan dela. Gure aurretik, batzuek amets egin zuten unibertsitate berri, euskaldun eta ikertzaile batekin, nazioartean ondo kokatuta egongo zen unibertsitate batekin, eta buru-belarri ekin zioten lanari. Gaurko gure unibertsitatea haiei zor diegu, urte luzez zuloz eta bihurgunez beteriko bidea egiteko prest egon direnei, bidean aurkitu ditugun lagun zintzoei. Eta lagun horien artean, jakina, Euskaltzaindia.

Gogora ekarri nahi nituzke gure unibertsitatearen aitzindari handienetako bat izan zen Carlos Santamariaren hitzak.

1968ko ekainean, Bilboko Unibertsitatea sortu zuen Dekretu Legea argitaratu eta egun gutxira, Carlos Santamariak «Negu-marrubiak» izeneko artikulua argitaratu zuen Zeruko Argia aldizkarian, oso argigarria dena ulertzeko nola hartu zuten orduko euskaltzaleek unibertsitate publiko baten sorrera.

«Euskal-unibersidadeaz, euskerazko unibersidadeaz, alegia, asko mintzatzen da gaurkoan. Naiz ta milla billoi libera izan eta libertade osoa izan, horrelako Unibersidade egiterik iñork ez du oraindikan, hizkuntza eldurik ez bait dago».

Izan ere, hizkuntza heldu eta emankor bat falta zitzaigun. Honako hau gehitu zion goetari:

«Euskera aurtxo bat bezelakoa da ta apal-apal lenengo maillako eskolatara joan bear. Sail hontan ere bere lana izango du, izan, aurrera ateratzeko. Asiera horri umil-umil ekiten badiogu, ba liteke biarke egunean, urrutiko udaberri batean, marrubiak euskal baratzean agertzea».

Horrela amaitu zuen Carlos Santamariak bere artikulua, gure unibertsitatea sortu eta egun gutxira idatzi zuena. Artikuluan aipatzen den «*urrutiko udaberri*» hori... ez al da iritsi jada gurera? Zein urrun zegoen orduan, 1968an, duela mende erdi baino gehiago...

Hala eta guztiz ere, nola gertatu da hain azkar eta hain sakon eraldaketa hau?

1968ra itzuliz, urte horretan burutu zen urte gutxi batzuk lehenago hasi zen lan bat, erabateko eragina izango zuena euskararen eta euskal kulturaren historian: euskara batuaren sorrera. Funtsezko bulzada hori Euskaltzaindiari zor diogu.

Miren Azkaratek oso esanguratsua den esaldi metaforiko bat aipatu du, Isaac Newton zientzialariak Robert Hooke bere lagunari eskutitz batean idatzi ziona: bere aurrekoei erreferentzia eginez, 'erraldaien

sorbalden gainean' ibili zela adierazi zuen.

Euskal Herriko Unibertsitateak izan ditu ere sorbalda indartsuko erraldoiak bidelagun.

Horietako bat Euskaltzaindia izan da. Bilboko Unibertsitatea sortu zen urte berean, 1968an, Euskaltzaindiak urrats garrantzitsua egin zuen euskararen normalizazioan, eta euskara batuaren lehenengo oinarri sendoak ezarri zituen.

1968ko Arantzazuko Biltzarra amaitzean, euskara batuaren lehenengo arau multzoa eman zuen: ortografia, morfologia, deklinabidea eta neologismoei buruzko arauak. Arau horiek hizkuntza idatziari zegozkion, ezinbestekoa testuliburuak sortu eta hizkuntza akademikoa garatzeko.

Denborak argi erakutsi du euskara batuak, hizkuntza bera modernizatzeaz gainera, batu egiten gaituela euskaldunok. Euskara baturik gabe, ez ziratekeen diren bezalakoak izango ez gaurko euskara ezta gaurko Euskal Herria ere.

Euskara modernizatzeko araurik gabe eta eredu estandar bat definitu gabe, gaur ez genuke unibertsitate euskaldunik izango.

Euskalkiez harago euskaldun guztiek ulertuko duten hizkuntza baturik gabe, ez genuke ere zientzia euskaraz egiteko modurik izango.

Bestetik, Euskaltzaindiari eta Euskal Herriko Unibertsitateari gagozkiolarik, nabarmentzekoa da ere bi erakundeetan pisu handia izan duten pertsonen lana, kasu askotan bi erakundeetako kide izanik bien arteko zubi lana egin dutenak. Funtsezko ekarpena egin diote Euskaltzaindiari, UPV/EHUri eta baita euskarari ere.

Alde horretatik, aipamen berezia merezi du Koldo Mitxelena irakasleak. Euskal literaturari, testu zaharrei eta hizkuntzaren historiari buruz egin zituen lanak funtsezkoak izan ziren euskara batua sor-



tzeko. Lexikoari dagokionez, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* egitasmoa jarri zuen abian, euskararen aro eta euskalki guztietako lexikoa jaso eta antolatzeko xedez.

Nabarmendu nahiko nuke ere Koldo Mitxelena Euskal Herriko Unibertsitatearen sorrerari eta kultura normalizazioari egin zien ekarpena, eta 1978tik aurrera UPV/EHUko euskal filologoaren lehen promozioen trebakuntzan egin zuen lan eskerga. Inork gutxi bezala uztartu zituen jakintza eta euskaltzaletasuna. Mitxelena bezalako euskaltzaleei esker iritsi zen euskara unibertsitateko fakultateetara, eta haren ikerketek zabaldu zizkiguten euskararen iraupen miresgarria ulertu ahal izateko bideak. Izan ere, errenteriar hizkuntzalari handiaren ahotan, «Euskararen egiazko misterioa iraupena da, ez jatorria».

Koldo Mitxelena aipatzeak hizpidea ematen digu adierazteko Euskal Herriko Unibertsitateko kide asko Euskaltzaindiako kide ere badirela. Edo alderantziz: Euskaltzaindiako kide asko UPV/EHUko kide ere badirela. Euskal Herriko Unibertsitateak

eta Euskaltzaindiak, erakunde gisa elkarlanean aritzeaz gainera, eskua ematen diote elkarri, irakasle eta ikertzaile asko ari baitira lanean eta jakintza sortzen bi erakundeetan.

Hori horrela, eskerrak eman nahi dizkiot ere Miren Azkarateri bere hitzengatik, eta erantsiko nuke aurretik esan dudanaren beste adibide bat dugula: euskaltzain izan zen lehen emakumea gure katedraduna da, eta haren ondoren akademiara iritsi diren beste emakume batzuk ere gure unibertsitateko kideak dira. Horrek agerian uzten du berriro bi erakundeen arteko lotura estua.

Dagoeneko esan dut Euskaltzaindiak eta gure unibertsitateak eskutik helduta egin dituztela azken 50 urteak. Ziur naiz horrela jarraituko dutela. Euskaltzaindiak ekitaldi honetan jaso duen urrezko domina Euskal Herriko Unibertsitatearen aitortzaren eta esker onaren adierazgarri da.

Beraz, zorionak Euskaltzaindiari eta mila esker euskararen alde eta euskal kulturaren alde egindako lan guztiagatik.











eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea